

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Larrea Olasagasti

*Donostia,
Gipuzkoa
(1920-2014)*

Aurkibidea



Biografia



Ondarretan jaio zen; aitak eraikitako bi etxeetako batean bizi ziren. Gurasoak biak ziren donostiarrak: ama, Loiolako Patxillardegi baserrikoa; aita Santio mendikoa, Amarakoa. Hamahiru senidetan hamabigarrena zen Patxi. Lau anai Kutz garagardo-lantegian zebiltzan; arreba gehienak, berriz, plantxadorak ziren. Etxe gaineko eskolan ibili zen ikasten, fraideekin, erdara hutsean. 14-15 urterekin, berriz, euskara ikasten ibili zen Hizkuntzaren Akademian, Toribio Altzagarekin. Antiguako Batzokiko ezpata dantzari taldekoa ere bazen. 16 urte bete eta segituan gerra hasi zen. Anaiak frontera joan ziren, eta bera Azkoitira gurasoekin eta arrebeekin; handik Bilbora joan ziren. Loiola batailoikoekin elkartu zen, eta haiekin joan zen Laredoraino. Preso hartu zuten, baina adin txikikoa zenez, libre geratu zen. Hori bai, sei urteko soldadutza egin behar izan zuen ondoren. Bueltan, Parte Zaharreko Barandiaran burdindegian egin zuen lana, kontuak eramaten. Escuela Cantorumera ere joaten zen: pianoa jotzen trebatu zen, eta nesken abesbatza zuzentzen jardun zuen. Kaira ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-093

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-15
- **Iraupena:** 108 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Agirre, Eli

Pasarteak

1. Ondarreta nolakoa zen 1920ko hamarkadan

- **Erref:** DON-093/002
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:00:45. **Bukatu:** 00:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ondarretan jaio zen. Orduan nolakoa zen. Kartzela. Mojak. Etxetxikin jaio zen arreba zaharrena, baina gero aitak bi etxe egin zituen: "Karmen enea" zen bat, amaren izenekoa. Barraka. Ezeizatarrak eta harrobiak. Igeldoko harria.

2. Umetako jolasak eta futbol txapelketak

- **Erref:** DON-093/003
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:04:25. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Umetako jolasak: pilota eta futbola. "Amatea" eta "biyopa" esaten zuten. Zaharragoekin ibiltzen zen futbolean. Nondik zihoan tranbia. Futbol txapelketak, hondartzan. Taldeak: Euzko Gaztedi, Abundio... Racing de Ondarreta.

3. Klabikula hautsi zuen, futbolean

- **Erref:** DON-093/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Klabikula hautsi zuen, futbolean jokatzen. Martin anaiak lagundu zion larrialdietako gelara.

4. Don Toribio Alzagarekin euskara ikasten

- **Erref:** DON-093/005
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:09:10. **Bukatu:** 00:10:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

15 urterekin Don Toribio Alzagaren hizkuntza akademiara joaten hasi zen, euskara ikasten.

Transkripzioa

-Gero pixkanaka-pixkanaka ba hamabost, hamabost eta hamalau ta hamabost urte... orduan etortze(n) nitzan ni osaba [...]kin ba, ikastokiya bazeukan, harrei laguntzea ta, eta ni geo, bukatze(n) genun eta "Academia de la Lengua", ayuntamentuak jarritakua, Don Toribio Alzaga ta e... bestia nola zan? Memoriz... ez naiz goatzen oain. Ba harrekin, eta bi urtetan edo, tira ta tira ta oso gustora gaiñea. Baiño gu geunden etxia...

-Zer ikasten zenuten?

-Euskera. Euskera, euskera hutsa. Oso majua zan, eta ni, nei nola gustatu zitzaixkiten harrek jartzen zitun ber... aditzak. Beste modu batea.

"Características de presente, de subjuntivo" ta "radical, agentes" ta "tal", jo, nei gauza hoiyek gustatzen! Gustatzen erderaz, frantsesez eta euskeraz. Gauza hoiyek. Bueno, ba holaxen, segi nun...

-Eta nora juten ziñan? Akademia nun zeon?

-E, bonberoak daude. Suhiltzailiak oain, oain dauden tokiyan, hantxe. Hantxe zeon. Ta eunero-eunero-eunero bi urte eta gehiyo, ez dakit zenbat denboran... gauza da, hamabost urte ta etorri zian, eta goizegi...

5. Gerra hasi zenean, Bilbo aldera

- **Erref:** DON-093/006
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:10:51. **Bukatu:** 00:13:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

16 urte bete zituztenean hasi zen gerra. Igeldoko bidera joan zen kanoikadak ikustera. Anaia zaharrenak Kutz garagardo lantegian egiten zuen lana. Amak eta senide batzuk Azkoitira joan ziren, eta handik Bilbora. Deustuko batek lagundu zien. Jatekoa.

Transkripzioa

-Eta gero, hamasei bete nitunian, holaxe justu-justu, ekainen biyan nik bete, eta hurrengo hillean hemezortzian zorionezko "alzamiento nacional". Eta hori ni Igeldon negola ikusten, Igeldoko birian... jun nitzan atsalde batian, zeatik ikusten zan handikan kaiñonazuak nola botatzen zituzten

“fuerte”... nola da hoi? Hernanitik gora. Bueno, handik. Eta ikusten zian suak, bam. Nola botatzen zituzten eta. Eta hara billa joan zitzaiten nere anai zarrena. Eta harrek lan iten zun Kutzeneko fabrikan. Kutz zerbeza fabrikan. Ta ikusi zun gaixki zegola gauza, orduako nere gurasoak, nere arreba, bi o hiru arreba, ez dakit zenbat, eta anai gaztiena alde iñak zian, eta Azkoitiyan. Ni orduan harrekin atea nitzan, eta Debara juan giñan. Deban pasa genun etxe... gau bat eta gero Azkoitira joan giñan. Eta handik, arriskutsua zala, e... trena hartu, tren zar bat eta ru-ru-ru-ru Bilbora. Eta hantxe geundela, ijituak bezala, danak aurrez etxeta... ba etxeak, ba amak eta anaiak eta arrebak-eta ba euskeraz, eta handik pasa zan bat, bilbotar bat, Deustokua, eta itxuraz etxia hutsik zeukan. Eta bere familiya Gasteizen. Fernando... ez, e, Candido Urrutia. Oaindikan izena goatzen naiz. Hilko zan hua, gizajua. Baiño euskeraz-eta aitu ta hola tartian hitz ein, eta raas, hark sartu gindun bere etxea. Bere etxean gu jabe, hantxen. Orduan zan “Avenida de las Universidades” eo “Avenida del Ejercito”, unibersidadia zan, eta handikan kanpoa. Ba hori hamasei urtekin.

-Eta jateko ta nola moldatzen ziñeten? Han, jateko ta?

-Talo pillat bat, taluak asko jaten genitun, eta neonek ite(n) nituen gustora. Eta ni gizendu in nitzan. Seguru, bai, bai. Ta nere anaiya´e bai, jo. Gustora! Nere arrebak eta ez, haiek pasatzen zituzten bildurrak... guk, hamasei urtekin, “que va!”.

6. Derioko aireportua eraikitzen, gerra garaian

- **Erref:** DON-093/007
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:13:53. **Bukatu:** 00:17:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Aireportua egiten ibili ziren Derion, Jerardo Bujandarekin eta. Urtebetez Bilbon. Bonbardaketak. Deustuko zubi azpian ezkutatzen ziren.

Transkripzioa

-Gaiñea, ordun Jerardo Bujandakin-eta ibilli giñan bolada batian Derioko aireportua egiten. Guk han sartuta gauzak eta zerbait, eta hau ta...

eguardiyan bueltatzen giñan etxea, ta han ibilli giñan, ez dakit zenbat denboan. Denboa... ba akaso urtebete baiño gehiyo bai. Bai, zeatik gero, karo, gauzak okerro joan zian, gero ta okerro, ta okerro. Orduan, bueno...

-Eta bonbardeorik eta? Zuk... bonbardeorik-eta izan zenuten?

-Bonbardeuak-eta... sartzen giñan Deustoko zubi azpiyan, beti raaa, azpiyan. Eta beti zan han emakume bat, neska gazte bat, desmayatu bezela ite(n) zan. Desmayatu ite(n) zan. Aitzen zuenerako dinbi-danba kaiñonazuak eta bonbak eta... sartzen zitzaion eta launtzen; e, hango medikuak-eta erne eoten zian, eta bazekiten ze gertatuko zitzaion. Bi o hiru aldiz gutxinez gertatu zitzaion hori.

-Bai, zuek leku fijo bat zenuten, ezta? Leku fijo zenuten, bonbardeoa hasten zanian nora joan, ez?

-Nola?

-Nora, ze lekutara joan.

-Ba bire, karretera zan. Karretera, ta zubiya, karreteratik zubira, eta gu azpitikan. Azpitikan hantxe, hantxe, eta “aguanta marea”! Tira, tira, tira...

joan arte.

-Ta asko... gero oso apurtuta zeon? Etxiak eta... bonbekin-ta asko puskatu zuten?

-Ez, han ez. Han ez zian herittu. Deuston eta ezta inguruan ez zian.... Oain, beste toki batzutan eta bai. Han gertatu zian... Ba orduan hemezortzi urte oandikan bete... ba orduntxe, eta abiatu giñan... Hamazazpi, hamazazpi urtekin, atea in behar genula ta osaba Modesto zeon batailloira, zeatik nik hiru anai batailloietan nitun. Osaba Juanito zaharrenak, eta zaharrena zana hogeita hamar, hogeita hamabi urtekua, eta hua, Gudarostea eo ez dakit ze deitzen zioten, eta osaba Manuel genuen, berriz, jeneral baten txoferra. Hartu zuten geo, italianuek beak. Ta harekin riiri, bueltaka ta. Bueno, gauza da gu´re atea giñala, eta ni han geatzen nitzan. Izeba Carmen geatu zan nei bakarrik ez uztatikan bea´re bai. Gero, ez dakit nola ibiliko zan... Hementxen alkartu giñan Ondarretan, etxian, lengo etxe zarrian.

7. Loiola batailoikoekin elkartu zen

- **Erref:** DON-093/009
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:17:12. **Bukatu:** 00:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Hiru anaia zituen batailloietan. Loiola batailoikoekin elkartu zen. Balmasedatik Laredorantz erretiratu ziren. Italiarrak sartu zirenean, armak entregatu behar. Gudarien aldizkariak erre zituen. Castrora eraman zituzten. Osaba gaixorik. "Txiribitas" antiguarrak ematen zuen abisua bisitaren bat zegoenean. 18 urte bete gabe zituenenez, libre utzi zuten.

Transkripzioa

-Esan dezu batailloi batekin elkartu ziñala. Ze batailloi zan?

-Batallon Loiola.

-Loiola?

-Loiola, bai.

-Nun zeuden ?

-Eta han nik ez nun ezertxo´re iten...

-Aber, nun zeuden Loiolakuak, Batallon Loiola?

-Orduan mendian, "batallón"... fusileruak esan ditezkenak mendian, baiño sukaldia orduan zegoen Balmasedan. Ze ta haiyek ere erretiratzen-erretiratzen... ta biltzen Balmasedan. Ta /da/ Balmasedan ere gaixki genbiltzala ta, italianuak eta sartuko ote ziren ta... ba handik alde in Truciosera. Truciosetikan, berriz, Castroa. Castro ta Laredo, hoiyen bitarti... Laredon hantxen zeuden, e, Konportakuak: osaba Modestoren emaztia ta ama ta han zeuden. Eta bueno, guk sukaldia hantxen; ta han geundela sartu zian italianuak. Hua penagarriya. Jende gaztiak fusileruak ba entre... armak, armak uzten, entregatzen, batzuk nearrez ta alde in, eta bua ta... Neonek hainbeste rebista nitun, "Gudari", eta ez harrapatziatikan danak suta botatzen. Bota ta dena erretzen, eta dana, bueno... hartu ginduzten, eta sartu gintuzten... Laredotik Castrora. Castron etxe haundi bat, konbentu haundi batian sartu ginduzten, ez dakit zenbat, zenbat jende! Ehunka. Ni goatzen naiz, gaiñea, nik hamazazpi urte, hemezortzi... Osaba Fructuoso erdi gaixoik zegoala, [...] ere bai, ta ura behar genuna, ura tantoka, tak-tak-tak-tak... eroitzen zitzaigun kanpuan. Nik eozein ordutan,

gauez, ontzin batekin joaten nitzan, han jaso ura eta eaman. Eta holaxen ibilli giñan. Orduan gauza txistosua sortu zan: korreo bat. Txiribitas. Txiribitas izena, antiquotarra zan. Eta familiya joaten zan... enteatzen zian han geundela batzuek, eta “oi, yo quisiera ver a este”. Eta hua bai: “A ver, quien se llama...”, abots haundik... eta danak erne. Horrek esaten zunai. “A ver quien se llama... Ui, nere familikuak”. Ra-ra-ra, ta holaxen. Hoi zan altaboza. Gauza txistosua. Klaro, orduan ez giñan prekupatzen. Baiñon italianuak etorri ta gero, orduan danak atea ginduzen, sartu zian bestiak, eta gu... Bueno, ni eta Felipe Alkorta, edade berdiñekuak, oaindik hemezortzi urte bete gabe, “menor de edad”, eta nei galdetu ziaten: “Y qué hacía usted ahí?”. “Pues como no tenía ningún sitio a donde ir, pues fui allí. No sabía ni qué hacer”. Holako tontokei bat esan niyen. Eta “años?”, ta hamazazpi urte. Eta bueno, libre utzi ginduzten eta etorri giñan, baiñon orduan zan tranbia, Añorgatik-eta etortze(n) zana ta raa... topoa bezela, eta guk baezpare esan genun: “Bueno-bueno-bueno, hemen ez gea jolasten ibiliko”... Eta Donostiyan jetsi biharrian jetsi giñan han, Añorgan eo. Eta handik tipi-tapa oiñez etxea.

8. Kutz garagardo lantegian lanean

- **Erref:** DON-093/010
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:21:16. **Bukatu:** 00:23:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Laredotik bueltan, Kutz garagardo lantegian hasi zen lanean. Zazpitik lau anai han ibili ziren. Kamioiak kargatzean, apuntatzen. Hotz egiten zuen.

9. Soldadutza garaian komeriak

- **Erref:** DON-093/011
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:23:55. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Gerra garaia. 18 urte bete, eta Gasteizera bidali zuten soldadu. Instrukzioa. Donostiar batek libratu zuen Ebrora joatetik. Extremadurara joan zen. Garaipenaren desfilean Madrilén egotea tokatu zitzaion. Zamoran hiru urte pasatu zituen.</p>

10. Zamoran ez zen gaizki moldatu soldadutzan

- **Erref:** DON-093/013
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:27:18. **Bukatu:** 00:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Goserik ez zuen pasatu Zamoran soldadu zegoela. Musika ikasi zuen, eta zaldian ibiltzen ere bai.</p>

11. Nesken abesbatzako zuzendari

- **Erref:** DON-093/014
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:29:40. **Bukatu:** 00:33:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Eskola Cantorum-en ibili zen, Donostian. Egunero zituzten saioak, Kursaal zaharrean. Pianoa jotzen egoten zen egunero. Urteaga zen maisua. Kontzertuak prestatzen ibiltzen zen, neska gazteen abesbatzaren zuzendari.

12. Meza berezia Santa Maria elizan

- **Erref:** DON-093/015
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:33:31. **Bukatu:** 00:35:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Meza berezi bat antolatu zuten Santa Marian, eta Donostiako abesbatza guztiei deitu zieten, baina orfeoak ez zuen parte hartu. Emakumeek debekatua zuten koroan sartzea. Apaiz italiarraren kontuak.

13. Guraso biak donostiarrak

- **Erref:** DON-093/018
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:36:36. **Bukatu:** 00:38:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

13 anai-arreba ziren. Lau ezkondu ziren. Guraso biak ziren donostiarrak. Santio mendikoa zen aita eta ama Loiolakoa, Patxillardegikoa.

14. "Karmen enea" nolakoa zen

- **Erref:** DON-093/020
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:39:41. **Bukatu:** 00:41:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

"Karmen enea" etxea nolakoa zen. Taberna zuen azpian. Plantxadorak (lisatzaileak) ziren arrebak. Binaka ohean.

15. Emakume lisatzaileen lana

- **Erref:** DON-093/021
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:41:20. **Bukatu:** 00:45:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Plantxadoren lana. Soineko dotoreak eta jantzi bereziak. Garbitu, almidoia eman eta plantxatu. Burdinazko plantxak. Aldiko sei berotzen zituzten. Punta borobildua. San Martin kalean ere bazeuden plantxadorak.

16. Labaderoan hogeit bat emakume

- **Erref:** DON-093/023
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:45:43. **Bukatu:** 00:47:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Labaderoan hogeit bat emakume, arropa garbitzen. Kupelean egosten zen arropa. Erregezainen kalean zegoen labaderoa, kanpoan. "Burutea" jarri, eta pisua buru gainean.

17. Ondarretako hondartzako kontuak

- **Erref:** DON-093/025
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:47:46. **Bukatu:** 00:51:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Hondartzako kontuak. Ondarretako kasetak, idiekin eramaten zituzten.

Denboralea izaten zenean, gustura. Egurrezkoak ziren kasetak. Kanpotar asko, udan. Batzuek ordaindu gabe alde egin zuten. "Habla en cristiano".

18. Kalean eta eskolan erdaraz

- **Erref:** DON-093/026
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:51:18. **Bukatu:** 00:53:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Erdaraz hitz egiten zuten kalean, eta etxean ere bai batzuekin. Parrokiako eskoletan erdaraz. 12 bat urte zituenean piztu zitzaion kontzientzia. Etxean bi talde egin zituzten.</p>

Transkripzioa

-Ez, erdera sartu zitzaigun, baita ere etxian ere.

-Umetatik?

-Etxian ere bai, zeatik, gertatu zitzaigun, gurasuak eta anai zaharrenak eta [...] gutxinez danak euskeraz, baiñon hortik aurrea gu nola goiyen genun eskola bat, monjak, erdaldunak, gero "escuelas parroquiales"ian eta bete-bete-betian hango maixuak, ba dana erderaz. Eta klaro, guk, orduan, zeñek pentsatu. Baiña halako batian nik, kaskagorra batzutan, hamabi bat urte nitula eta ikusten nere amak ze zailtasunak pasatzen zitun, erderaz hitz eiteko hango jendiakin eta, "hombre", ta nik hoi amak holako, ta, ta nik nei erderaz, zergatik eta. Ba geroztik euskeraz, eta jo ta ke, hala, baiño konturatuta, hoixe.

Miren -Baiño zuek, anaiak eta bi talde in zenituzten.

-Bai ba, esan dezagun, izeba Carmen, osaba Juanito, izeba Maria, osaba Josetxo eo Jose, osaba Manuel, osaba Justo, bost, bost, Iñaxi sei, Ambrosi're bai, Ambrosi zazpi, zazpi-zortzi. Bestiak, osaba Josetxo, izeba Axun, gero ni eta osaba Ramon, hau osaba Martin'e bai, euskeraz. Ba guk lau-bost sartua, sartua, gaztienak eta orduan dudatzen ez, gero, gero bai.

19. Eskolan Don Jose Lopez apaizarekin

- **Erref:** DON-093/027
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:53:25. **Bukatu:** 00:54:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan Antiguán ibili zen, apaiz batekin. Frantsesa erakusten zion jolas orduetan. Don Jose Lopez. Don Tomas Arteaga apaizaren laguna zen.</p>

Transkripzioa

-Eta eskolan, zu nun ibili ziñan?

-Han bertan.
 -Monjekin?
 -Monjakin ez, maisua zan, maisua apaiz, apaiz bat, oso iaiua /yaiyua/, harrekin batera errekreua esaten zitzaiyona bezela, harrekin ni rekreua jun baiño, harrekin frantsesez. Bueno, total, pixka bat, pixka bat e, gauza haundirik ez eta gure, zea nola da, zan metodo bat eta harrekin eta. Gauza da, jakin nahi, ikasi nahi eta gaiñekuan ez.
 -Eta nola zun izena maixuak?
 -Apaiza, Don Jose López [Ortas], eta zan oso lagun beste apaiz baten laguna, Don Tomas Arteaga, bertakua oso [...] hartutakua, jendia, horko jendia gero, ta honek defenditzen zun, hortan bai, oso ondo portatu zan, hori.

20. Mutilak eta neskak aparte eskolan

- **Erref:** DON-093/029
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:55:09. **Bukatu:** 00:56:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan mutilak eta neskak aparte. Espainiako ibaiak eta mendiak ikasten zituzten, Madrilgo kontuak baina bertakoak ez. Doktrina ere erdaraz.</p>

Transkripzioa

-Mutillak, mutillak izaten giñan, bai; mutillak eta monjakin neskak.
 -Eta ze ikasten zenuten?
 -Zer ikasi? "Los partidos judiciales de Madrid", hoi memoriz.
 -A, bai?
 -"Los partidos judiciales de Madrid", hoi memoriz, "los ríos de España: el Ebro nace en Fontibre, Santander, Ebro, Tajo, Guadiana, Guadalquivir, Ebro." Baiño nundik juaten zan hemendik Pasaira, o hemendik Tolosara, iñork ez zekin, iñork ez. Ze mendiyak genitun hemen, hoi, hori, ba, Ulia eta Igeldo, Igeldo zalako, beste gauzik ez.
 -Eta maixua kanpotarra, orduan?
 -Ez, ez, bertakuak baiñon...
 -Bertakua zan, hori...
 -Bertakua, baiño, liburua, liburua zan. Liburu hartan bertan, "Libro medio" zan ta Madriko "partidos judiciales". Nei ze ajola zait "partidos judiciales de Madrid"? "Madrid, Fuencarral, Toledo, Ciudad de..." eztakit zenbat zien, ahaztu, ahaztuta dittut. Eta holaxen.
 -Eta, euskeraz, ezer, ezer ez zenuten ikasten?
 -Batere ez!
 -Dotriña ere ez?
 -Ezta ere, ezertxo ere, ezertxo ere, ezertxo ere. Ezertxo ere, ahaztuta hori, beste, Kenian biziko bagiña bezelaxe, erabat. Batere, batere.

21. Doktrina ere erdaraz

- **Erref:** DON-093/032

- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:57:57. **Bukatu:** 00:59:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Eskola non zegoen, etxe ondoan. Doktrina elizan ere ikasten zuten. Apaiz gehienak euskaldunak ziren, baina erdaraz. Luis Arzelusen anaia entzun zuen lehen aldiz euskaraz irratitik.

22. Batzokian ezpata dantza ikasten

- **Erref:** DON-093/033
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:59:12. **Bukatu:** 01:01:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Gerra aurreko batzokiak. Antiguako batzokia. Ezpata dantza ikasi zuen han. Hilabete egin zuen gaixo. San Inazio egunean Atotxan egiten zuten dantza.

23. Antiguako ezpata dantzariak

- **Erref:** DON-093/035
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:01:49. **Bukatu:** 01:02:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Antiguako ezpata dantzariak. Zortzi laguneko bizpahiru talde. Maisuetako bat Esteban Collantes txistularia zen.

24. Umetako jolasak; laukoak

- **Erref:** DON-093/037
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:02:55. **Bukatu:** 01:04:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Neskekin sokasaltoan eta guardias-ladrones. Pilotarekin. Mutilen jolasak zakarragoak. Txorro-morro. Kaniketan. Laukoak zer ziren, pospolo kaxa puskak.

25. Igerian nola ikasi zuen

- **Erref:** DON-093/039
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 01:05:09. **Bukatu:** 01:07:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Poste batzuek jartzen zituzten, sokarekin, igerian ikasteko. Olatuak. Orduko igerilariak. Bainujantziak. Neskak ondo tapatuta uretara.

26. Karrakelak, arroketan

- **Erref:** DON-093/041
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:08:43. **Bukatu:** 01:11:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Arrantzan ez, baina karrakelak jasotzen ibilia da umetan. Tenisetik uharteraino bidea egiten hasi ziren. Arroak. Tamarindoak. Txoria hil zuen tiragomarekin, eta penatuta geratu zen.

27. Umetan, Igeldoko jolas parkean lanean

- **Erref:** DON-093/042
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:11:01. **Bukatu:** 01:13:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Igeldora sarri joaten ziren, bidezidorretatik. Jolas parkean txartelak jasotzen egin zuen lana umetan. Mendi errusiarra. Funikularrean eta oinez igotzen zen.</p>

28. Ondarretako kartzela

- **Erref:** DON-093/045
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 01:14:16. **Bukatu:** 01:17:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

1888an egin zuten Ondarretako kartzela. Bere aita zaindari ibili zen, eta preso batzuek ihes egin zioten. Gerra ondoren gertatu zirenak. Tirorik ez zuten entzun; beste toki batzuetan fusilatzen zituzten.

29. Ondarretako kartzela II

- **Erref:** DON-093/047
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:17:39. **Bukatu:** 01:19:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Txikiak zirenean eta gero kartzelako funtzionamendua diferentea zen. Gogoan ditu komunistak Abanti Popolo kantatzen. Cara al Sol, gero. Bandera juratu zuenean, txistua bota zion; ez ziren konturatu.</p>

30. Arreba, printzearen jostuna

- **Erref:** DON-093/055
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:29:56. **Bukatu:** 01:30:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Juan Carlos erregeari egin zion alkandora bere arreba Iñaxik, mutikoa zela. Jostun ona zen.

31. Orioko martxa aldrebesa

- **Erref:** DON-093/057
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 01:31:05. **Bukatu:** 01:34:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Gerraosteko garai tristea. Hernanira joateko "salvoconducto" beharra. San Pedro egunean Oriora joan ziren oinez Eskola Cantorumekoak. Ondoezak jotako bat eraman zuten, baina hil egin zen.</p>

32. Danborrada, kaldereroak eta militarrek

- **Erref:** DON-093/059
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 01:34:41. **Bukatu:** 01:39:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Ondarretan danborrada, goizeko zazpitan. Antiguatik, zaldiz. Kaldererotan atera zen. Pimentel jeneralarengana joan ziren. Koronel batzuekin topo egin, eta ez zuen besoa altxatu; "calamidad" deitu zion. Zamorako anekdota bat, soldadutzakoa.</p>

33. Kaldereroetako kankak

- **Erref:** DON-093/062
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:40:12. **Bukatu:** 01:41:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kankak » Bestelako kankak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

<p>Kaldereroetako jantziak eta kankak.</p>

34. Nobio kontuak nola ziren lehen

- **Erref:** DON-093/068
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:45:26. **Bukatu:** 01:47:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Ehundik gora biltzen ziren Eskola Cantorumen, egunero. Emaztea nola ezagutu zuen. Hiru urte nobiotan. Ez zen taberna zalea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com